



AGINDUA, GOBERNANTZA PUBLIKO ETA
AUTOGOBERNUKO SAILBURUARENA, EUSKAL
AUTONOMIA ERKIDEGOKO SEKTORE
PUBLIKOAREN ESPARRUAN ARAU-HAUSTEEN
BERRI EMATEKO ETA SALATZAILEAK BABESTEKO
BARNEKO INFORMAZIO-SISTEMA SORTU ETA
ARAUTZEN DUEN DEKRETU-PROIEKTUA ALDEZ
AURRETIK ONARTZEN DUENA

ORDEN DE LA CONSEJERA DE GOBERNANZA
PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO, POR LA QUE SE
APRUEBA CON CARÁCTER PREVIO EL PROYECTO
DE DECRETO POR EL QUE SE CREA Y REGULA EL
SISTEMA INTERNO DE INFORMACIÓN DE
INFRACCIONES NORMATIVAS Y DE PROTECCIÓN
DE LAS PERSONAS DENUNCIANTES EN EL MARCO
DEL SECTOR PÚBLICO DE LA COMUNIDAD
AUTÓNOMA DE EUSKADI

2023ko apirilaren 12ko Aginduen bidez,
Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren
eremuan informaziorako eta salatzaileen
babeserako barne-sistema arautzen duen
dekretu-proiektua egiteko prozedura hasi zen.

Mediante Orden de 12 de abril de 2023 se inició
el procedimiento para la elaboración del Proyecto
de Decreto regulador del Sistema interno de
información y de protección de las personas
denunciantes en el ámbito de la Administración
de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Ekainaren 30eko 6/2022 Legeak, Xedapen
Orokorrak Egiteko Prozeduarenak, 15.1.
artikuluaren ezaugarriak, xedapen orokorren
proiektuak idatzitakoan, prozedura hasteko
agindua eman duen organoak aldez aurreko
onarpena eman beharko dio dena delako testu
artikulatuari, dagozkion negoziazio-, entzunaldi-
eta kontsulta-izapideak egin aurretik.

El artículo 15.1 de la Ley 6/2022, de 30 de junio,
del Procedimiento de Elaboración de las
Disposiciones de Carácter General establece que,
una vez redactados los proyectos de disposición
de carácter general, antes de evacuar los trámites
de negociación, audiencia y consulta que
procedan, el texto articulado correspondiente
deberá contar con la aprobación previa acordada
por el órgano que haya dictado la Orden de inicio.

Hori dela-eta, egindako dekretu-proiektua
ikusita, eta aurretik aipatutako apirilaren 12ko
Aginduekin bat etorritik, honako hau

Por todo ello, visto el texto del proyecto de
Decreto elaborado, y de conformidad con la
Orden de 12 de abril anteriormente citada,

EBAZTEN DUT

RESUELVO

Lehenengoa: Aldez aurreko onarpena ematea
Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren
esparruan arau-hausteen berri emateko eta
salatzaileak babesteko barneko informazio-
sistema sortu eta arautzen duen Dekretu-
proiektuari.

Primero: Aprobar, con carácter previo, el texto
del proyecto de Decreto por el que se crea y
regula el Sistema interno de información de
infracciones normativas y de protección de las
personas denunciantes en el marco del sector
público de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Bigarrena: Dekretu-proiektua egiteko
prozedura jarraitzeko agindua ematea; hala
ezarrita dago, batetik, Gobernantza Publiko eta
Autogobernuko sailburuak 2023ko apirilaren 12an

Segundo: Ordenar la continuación del
procedimiento de elaboración del proyecto de
Decreto; de conformidad con los trámites
establecidos en la Orden de 12 de abril de 2023 de



emandako Aginduan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eremuan informaziorako eta salatzailen babeserako barne-sistema arautzen duen dekretu-proiektua egiteko prozeduraren hasierako aginduan, eta, bestetik, ekainaren 30eko 6/2022 Legean, Xedapen Orokorrak egiteko Prozedurari buruzkoan.

la Consejera de Gobernanza Pública y Autogobierno por la que se acuerda la iniciación del procedimiento para la elaboración del Proyecto de Decreto regulador del Sistema interno de información y de protección de las personas denunciantes en el ámbito de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, y en la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General.

Hirugarrena: Aldez aurretik onartutako dekretu-proiektuaren testua Eusko Legebiltzarrari bidaltzea, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legea aldatzen duen ekainaren 2ko 8/2016 Legea betez.

Tercero: Remitir al Parlamento Vasco el texto del proyecto de decreto aprobado de forma previa en cumplimiento de la Ley 8/2016, de 2 de junio, de modificación de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno.

Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoan ageri den egunean.
Vitoria-Gasteiz, a la fecha de la firma electrónica.

Olatz Garamendi Landa
Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua
Consejera de Gobernanza Pública y Autogobierno

Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren esparruan arau-hausteen berri emateko eta salatzaileak babesteko barneko informazio-sistema sortu eta arautzen duena.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko urriaren 23ko 2019/1937 (EB) Zuzentarauak —Batasuneko Zuzenbidearen arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteari buruzkoak—, funtsezkotzat jotzen du, interes publikorako kaltegarriak diren Batasuneko Zuzenbidearen arau-hausteak aurkitu eta prebenitzeko orduan, arau-hauste horiek salatzen dituzten pertsonak betetzen duten eginkizuna, beren lan-jardueren testuinguruan arau-hauste horien berri ematen dutenean.

Baina aitortza horrekin batera, beharrezkoa da salaketak jartzen dituztenei behar bezalako segurtasuna emango dien babes orekatu eta eraginkor bat izatea, hain garrantzi publiko handia duen jarduketa horren ondorioz jasan ditzaketen errepresalien aurrean.

Horrela, 2019/1937 Zuzentarau horren bidez, salatzaileen babes eraginkorra bermatzeko Europar Batasunaren eremuan aplikatu beharreko gutxieneko arau komunak jasotzen dira, interes publikoa zaintze aldera. Horretarako, Zuzentarauaren 26.1 artikulua aginduzko transposizioa ezartzen du, alegia: «Estatu kideek zuzentarau honetan ezarritakoa betetzeko legezko xedapenak, erregelamenduzkoak eta xedapen administratiboak jarriko dituzte indarrean».

Arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzeko eta ustelkeriaren aurka borrokatzeko 2023ko otsailaren 20ko 2/2023 Legeak Espainiako Zuzenbidean txertatzen du Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko urriaren 23ko 2019/1937 Zuzentaraua, eta zuzenbide positiboan jasotzen du arestian adierazitako oinarriko helburua, hots, lan- edo lanbide-testuinguru batean arau-hausteak hautematen dituzten eta bertan araututako mekanismoen bidez arau-haustek komunikatzen dituzten pertsonak babestea.

Bestalde, 2023ko otsailaren 20ko 2/2023 Legeak 2018/1937 Zuzentarauak jasotakoa baino eremu material zabalagoa du, Zuzentaraua Batasuneko Zuzenbidearen arau-haustetara mugatzen baita, eta gure ordenamendu juridikoko arau-hauste penal eta administratibo larriak eta oso larriak ere barne hartzen ditu, eta horien artean sartzen dira Ogasun Publikoari eta Gizarte Segurantzari kalte ekonomikoa eragiten dieten arau-hauste guztiak.

Babes horren hartzaileak dira aipatutako arau-hausteen berri eman eta sektore publikoko zein pribatuko erakundeekin lanbide- edo lan-loturak dituzten pertsona guztiak, bai eta lanbide-harremana amaituta dutenak ere, eta boluntarioak, praktiketako edo prestakuntza-aldiko langileak, edo hautaketa-prozesuetan parte hartzen duten pertsonak. Babesa ematen die, halaber, informatzaileei laguntza ematen dieten pertsonari, errepresaliak jasan ditzaketen inguruko pertsonari eta informatzailearen jabetzako pertsona juridikoei, besteak beste.

2013ko otsailaren 20ko 2/2023 Legearen edukia ez da mugatzen soilik salatzaileen babesa modu erretorikoan aitortzera; aitzitik, babes horrek hartzen dituen maila eta esparru guztietan hura gauzatzeko beharrezkoak diren mekanismoak sortzea xedatzen du. Beraz, agintari publikoek kudeatutako kanpo-kanalak jasotzeaz gain, informaziorako eta salaketarako barne-kanalak sortzea eta antolatzea ezartzen du enpresen barruan eta entitate publiko guztietan. Horrela, lehen aipatutako Europako arau-testuaren ildo beretik, jardunbide irregularrei buruzko barneko

informazio-sistema lehenesten du, eragindako antolakundeak berak haren berri izan dezan; izan ere, antolakundearen barruko jarduera arduratsu eta eraginkor batek laguntzen du ikertutako jarduketan ondorio kaltegarriak geldiarazten eta gerta daitezkeen kalteak ahalik eta lasterren konpontzen.

Sektore publikoari dagokionez, 2/2023 Legeak informazioa emateko barne-sistema hori edukitzeko betebeharra ezartzen die sektore publikoa osatzen duten organismo eta entitate guztiei, bai eta konstituzio-organoei eta garrantzi konstituzionala dutenei ere, eta autonomia-estatutuetan aipatzen direnei. Horretarako, 5. artikuluan, babes-mekanismo hori abiarazteko arduraduna nor den esaten du, eta hura ezartzeko eta arautzeko betebeharra esleitzen dio «entitate edo organismo bakoitzeko administrazio-organoari edo gobernu-organoari», zeina, aldi berean, datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna izango baita, datu pertsonalak babesteari buruzko araudian xedatutakoaren arabera.

2/2023 Legeak Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren eremuan sartzen diren entitate eta antolakundeekiko duen lotura juridikoari dagokionez, haren edukia administrazio publikoen araubide juridikoaren oinarritzko alderdietako bat dela esan behar da, eta hura ezartzea Konstituzioak 149.1.18 artikuluan Estatuari esleitzen dion eskumen eksklusiboaren barruan sartzen dela, eta, beraz, nahitaezkoa da Legea zuzenean betetzea.

Ondorioz, 2/2023 Legea oinarritzko arauditzat jo behar denez, Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruko administrazio publiko bakoitzari dagokio barne-sistema horiek sortzea eta arautzea; hau da, foru- eta toki-administrazioetako gobernu-organo bakoitzari, bai eta Administrazio Autonomikoko gobernu-organoari ere.

Horrenbestez, helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan aplikatzea 2/2023 Legean jasotako aurreikuspenak, Euskal Sektore Publikoari buruzko 2023ko maiatzaren 12ko 3/2023 Legearen II. tituluan jasotako baldintzetan, eta barne-sistema bat eratzea, arau-hausteei buruzko informazioa jakinarazten duten pertsonak informatzeko eta babesteko.

Behin 2/2023 Legeak ezarritako errekerimendua betetzeko betebeharra bereganatuta, lehenik eta behin erabaki behar da dekretu honen bidez sortzen den barneko informazio- eta babes-sistemak zer eremu funtzionaletan jardungo duen.

Sektore publikoko antolakunde eta entitate guztiek izan beharko dute barne-sistema hori, eta, beraz, erabakirik egokiena, dekretu honen bidez artikulatua, barne-sistema komun bakarra eratzea da, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten antolakunde guztiak bilduko dituen, Euskal Sektore Publikoari buruzko 3/2022 Legean jasotako baldintzetan, eta, ondorioz, sistema horren hedapen egokia abiaraztea, 2019/1937 (EB) Zuzentarauan eta 2/2023 Legean jasotako aurreikuspenaren arabera.

Bigarrenik, garbi gelditu behar da bai 2019/1937 Zuzentarauan eta bai 2/2023 Legean jasotako agindua ez dela mugatzen barneko informazio-sistema horiek sortzera; izan ere, «entitate edo organismo bakoitzeko administrazio-organoari edo gobernu-organoari» ezartzen dio informazioak kudeatzeko prozedura onartzea, konfiantzaren eta inpartzialtasunaren oinarritzko ezaugarrien arabera, informatzaileen ukgibetasuna behar bezala bermatuz eta babestuz, eta informatzailearen nortasunaren konfidentzialtasun-oharrei, irisgarritasunari, arintasunari eta efizientziari erantzunez jasotako informazioak kudeatzean eta ikertzean. Halaber, ikerketa-jarduketei erantzuteko gehieneko epea zehaztu behar da –epe hori ezin izango da hiru hilabetetik gorakoa izan, jakinarazpena jasotzen denetik zenbatzen hasita–; ukitutako pertsonen

errugabetasun-presuntzioa eta ohorea errespetatzeko betebeharra; datu pertsonalak babesteari buruzko xedapenak errespetatzekoa, eta, azkenik, informazioa Fiskaltzari berehala igortzeko betebeharra, baldin eta, zantzuen arabera, komunikazioaren xede diren gertakariak delitu izan badaitezke. Gertakari horiek Europar Batasunaren finantza-interesei eragiten badiete, informazioa Europako Fiskaltzara bidali beharko da.

Era berean, 2/2023 Legeak zehazten du ezen barneko informazio-sistema horrek arduradun bat izan behar duela; alegia, pertsona fisiko bat, kasuan kasuko organismoko gobernu-organoak izendatua. Pertsona horrek entitate edo organismoko gainerako organoetatik modu independentean eta autonomoan beteko ditu bere eginkizunak; ezin izango du inolako jarraibiderik jaso bere jardunean, eta eginkizunok gauzatzeko behar diren giza baliabide eta baliabide material guztiak izan beharko ditu eskura, eta bere ardurapean hartuko ditu informazioak kudeatzeko prozeduraren izapidetze prestua eta beharrezkoak diren babes-jarduketak.

Barne-sistemaren arduradun izendatutako pertsonaren ezaugarri horiek direla eta, oinarritzko estatusa duen organo gisa eratu behar da, eta oinarritzko ezaugarri horiek bermatu behar ditu. Hori dela eta, dekretu honen bidez, organo horri mugiezintasun-araubide bat esleitzen zaio, eginkizunak betetzen dituen bitartean, eta, era berean, lanbide-ukigabetasunaren bermea, funtzio hori betetzeko izendatutako pertsona funtzionario publikoa den kasuan.

Zalantzarik gabe, barneko informazio-sistema hau arautzearekin eta, berandu baino lehen, Eusko Legebiltzarrak kanpoko informazio-kanalaren mekanismo instituzionala eratu ahal izateko aukerarekin, ate bat zabaltzen da Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte- eta ekonomia-sarea osatzen duten erakundeen, enpresen eta pertsonen integritatean sakontzeko, interes publikoa babesten duen herritarren lankidetzakultura sendo bat eratzeke beharrezkoak diren urratsak emanez.

Azaldutako esparru juridiko eta soziala kontuan hartuta, Eusko Jaurlaritzak bere gain hartu nahi du, dekretu honen bidez, arau-haustea salatzen dituzten pertsonen informazioa eta babesa emateko barne-sistema arautzea, EAEko eragile ekonomiko eta sozialek, publikoek zein pribatuak, harian-harian beren gain hartu beharko duten konpromiso instituzionalaren erreferente gisa, integritate publikoa babesten eta sustatzen duen kultura bultzatzeko bidean, xede horretarako beren lankidetzak eskuzabaltasun osoz eskaintzen duten herritarren ukigabetasunaren berme-esparru batean.

I. kapitulua – Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea.

Dekretu honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan arau-hausteei buruzko informazioa emateko eta salatzaileak babesteko barne-sistema eratzen da, Arau-hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteko 2023ko otsailaren 20ko 2/2023 Legearen II. tituluan aurreikusitako baldintzetan.

2. artikulua. Helburua

1. Dekretu honen helburua da barne-kanal bat eratzea, 4. artikuluan aurreikusitako arau-hausteei buruzko informazioa jaso, izapidetu eta horren berri emateko, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan integratutako antolakunde eta entitateen esparruan.

2. Arau honen helburu nagusia da 4. artikuluan jasotzen diren ekintzen edo ez-egiteen berri ematen duten pertsona fisikoek jasan ditzaketen errepresalien aurrean babes egokia ematea.

3. Xedapenaren helburua da informazioaren edo komunikazioaren kultura bultzatzea eta indartzea, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren eremu funtzionalean interes publikoaren aurkako mehatxuak prebenitzeko eta detektatzeko mekanismo gisa, betiere erakundeen eta haiek osatzen dituzten pertsonen integritatea bilatuz.

3. artikulua. Aplikazio-eremu funtzionala

Arau-hausteei buruzko informazioa emateko eta salatzaileak babesteko dekretu honen bidez arautzen den barne-sistemaren jarduketa-esparruak antolakunde eta entitate hauek hartzen ditu barnean, Euskal Sektore Publikoari buruzko 2022ko maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen II. tituluan jasotako baldintzetan:

- a) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra.
- b) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Instituzionala; alegia, gaur egun dauden organismo autonomoak eta zuzenbide pribatuko ente publikoak, eta dekretu hau indarrean jartzen denetik aurrera eratzen direnak.
- c) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko ente instrumentalak, gaur egun dauden sozietate publikoak eta haien fundazio eta partzuergoak barne hartuta, bai eta dekretu hau indarrean jartzen denetik aurrera eratzen direnak ere.
- d) Euskal Sektore Publikoari buruzko 2022ko maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 10. artikuluan arautzen diren administrazio-agintaritza independenteak eta agintaritza horietako bakoitzaren sorrera-legean arautzen direnak.

4. artikulua. Aplikazio-eremu materiala

Arau-hausteei buruzko informazioa emateko eta salatzaileak babesteko dekretu honen bidez arautzen den barne-sistemak bide bat irekitzen du Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan integratutako entitate eta antolakundeetan gertatutako ekintzei edo ez-egiteei buruzko informazioa emateko, baldin eta arau-hauste penal edo administratibo astun edo oso astun gisa har badaitezke edo, hala badagokio, Europar Batasuneko Zuzenbidearen arau-hauste gisa har badaitezke, kasuan kasuko jakinarazpena egiten duten pertsonen ukigabetasuna bermatzen eta babesten duen esparru batean.

5. artikulua. Aplikazio-eremu pertsonala

1. Dekretu honetan arau-hausteen berri emateko eta salatzaileak babesteko arautzen den barne-sistemaren bitartez 4. artikuluan jasotako arau-hausteei buruzko komunikazioa eta informazioa eman ahal izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan integratutako antolakundeen barruan lan- edo lanbide-testuinguru batean arau-hauste horien berri izan duten pertsonak, betiere honako subjektu hauek barnean hartuta:

- a) Enplegatu publikoak edo besteren konturako langileak direnak.
- b) Antolakunde horiei zerbitzuak ematen dizkieten profesionalak.
- c) Enpresa bateko akziodunak, partaideak eta administrazio-, zuzendaritza- edo gainbegiratze-organoko pertsonak, barne hartuta exekutiboak ez diren kideak.

- d) Kontratista, azpikontratista edo hornitzaileentzat eta haiek gainbegiratuta eta zuzenduta lan egiten duen edozein pertsona.

2. Arau-hausteen berri emateko eta salatzaileak babesteko barneko informazio-sistema honek babesten ditu, halaber, amaitutako lan- edo estatutu-harreman baten esparruan lortutako arau-hausteei buruzko informazioa jakinarazten duten pertsonak, boluntarioak, bekadunak, prestakuntza-aldian dauden langileak, bai eta funtzionario- edo lan-harremana hasi gabe duten langileak ere, baldin eta arau-hausteei buruzko informazioa hautaketa-prozesuan zehar lortu bada.

3. 2023ko otsailaren 20ko 2/2023 Legean jasotako informatzailea babesteko neurriak, dekretu honetan araututako arau-hausteen berri emateko eta salatzaileak babesteko barne-sistemaren esparruan emango direnak, honako hauei ere aplikatuko zaizkie:

- a) Langileen legezko ordezkariak, informatzaileari aholkuak eta laguntza emateko eginkizunak betetzen ari direnean.
- b) Informatzailearekin harremana duten eta errepresaliak jasan ditzaketen pertsona fisikoak, hala nola lankideak edo senideak.
- c) Informatzaileak zerbitzuak ematen dituen antolakundearen esparruan, prozesuan hari laguntza ematen dioten pertsona fisikoak.
- d) Informatzaileak ugazaba dituen pertsona juridikoak, edo berarekin lan-testuinguru batean bestelako edozein harreman duten pertsona juridikoak, edo beraren partaidetza esanguratsua dutenak.

II. kapitulua – Prozedura

6. artikulua. Barneko komunikazio-kanala

1. Barneko komunikazio-kanal bat eratzen da, egoitza fisikoa eta digitala dituen, dekretu honen bidez sortutako arau-hausteen berri emateko eta salatzaileak babesteko barne-sistemaren funtzionamendua antolatzeko.

2. Dekretu honen 5. artikuluan zerrendatutako edozein pertsonak jo ahal izango du barne-kanal horretara, Dekretuan arautzen diren arau-hausteei buruzko informazioa aurkezteko.

7. artikulua. Irisgarritasuna

1. Barneko kanal horretan, komunikazioak idatziz edo ahoz aurkeztu ahal izango dira, bai ezarritako egoitzan aurrez aurre, bai horretarako prestatutako edozein bitarteko elektronikoren bidez, edo telefonoz edo ahots-mezularitzaren bidez.

2. Ahozko komunikazioak dokumentatu egin beharko dira, informatzailearen alde aurreko baimena eskuratuta. Horretarako, elkarrizketa grabatu egingo da, edo hura osorik eta zehatz-mehatz transkribatu, informatzaileak egiaztatu eta onartu ondoren.

3. Komunikazioa barneko kanal horren bidez bideratzen dutenei modu argi eta irisgarrian emango zaie kanpoko informazio-kanalen berri, agintari eskudunen aurrean eta, hala badagokio, Europar Batasuneko erakunde eta organismoen aurrean baliatzeko.

4. Barneko informazio-kanalak komunikazio anonimoak aurkeztea eta ondoren izapidetzea ere onartuko du.

8. artikulua. Konfidentzialtasuna.

1. Barneko informazio-kanalera helarazitako komunikazioak aurkezten diren unetik bertatik kudeatuko dira, konfidentzialtasun zorrotzeko araubide baten pean. Araubide horrek informatzailearen nortasuna eta harekin lotutako gainerako datuak babestuko ditu beti, bai eta komunikazioa aurkezteko inguruabarrak ere.

2. Barne-kanalaren aurrean aurkeztutako salaketak kudeatzean konfidentzialtasuna hautsiz gero, horrek ordenamenduaren arau-hauste oso larria ekarriko du, eta, horrenbestez, dagozkion erantzukizunak exijituko dira, barneko informazio-sistemaren arduradunak proposatuta, barne-sistema hori atxikita dagoen saileko sailburu titularrak exijituta eta egileen nortasuna eta arau-haustea eragin duten gertaerak argitaratuta.

9. artikulua. Kudeaketa-prozedura

Dekretu honen 15. artikuluan aurreikusitako sistemaren arduradunari dagokio barne-kanalaren bidez aurkeztutako informazioak kudeatzeko prozedura izapidetzea.

10. artikulua. Erregistroa

Barne-kanal horren aurrean formulatutako informazio eta salaketa guztiak, aurkezteko formatua edozein dela ere, behar bezala erregistratuko dira, eta bertan jasoko dira horiek kudeatzeko oinarritzko mugarriak. Tresna horrek erabateko konfidentzialtasuna gordeko du beti, eta sistemaren arduradunak eta bere bulegoko langileek soilik izango dute sarbidea.

11. artikulua. Eskaera jaso izanaren agiria

Aurkeztutako komunikazioa jaso izanaren agiria bidaliko zaio informatzaileari, jaso eta gehienez ere zazpi egun naturaleko epean, non eta horrek ez duen arriskuan jartzen haren konfidentzialtasuna.

12. artikulua. Triajea

1. Sistemaren arduradunak aurkeztu den komunikazioaren lehen azterketa egingo du, dekretu honen 4. artikuluan jasotako ezaugarriak betetzen diren egiaztatzeko eta, horrenbestez, komunikazioa kalifikatzeko.

2. Aurretiazko kalifikazio horretarako edo informazio zehatzari ekiteko eta zabaltzeko funtsezko alderdiren bat osatu behar dela ikusiz gero, sistemaren arduradunak informatzailearengana joko du, hark aurkeztutako informazioa osa dezan.

3. Egin beharreko balorazioak egin ondoren, sistemaren arduradunak uste badu aurkeztutako informazioak ez dituela betetzen 2023ko otsailaren 20ko 2/2023 Legeak eta dekretu honek eskatutako baldintzak edo betekizunak, hala izapidetzeko nola beharrezko informazioa behar bezala garatzeko, artxibatu egingo du, eta horren berri emango dio informatzaileari, aldi berean jakinaraziz ezen arau-hausteei buruzko informazioaren kanpoko kanalera jotzeko aukera duela, kasuan kasuko erakunde publikoen aurrean.

4. Honako egoeretako edozein gertatzen denean, sistemaren arduradunak onartezintzat joko ditu komunikazioa eta haren izapidetzea; horrenbestez, artxibatu egingo du, eta informatzaileari horren berri emango dio aurkeztu eta bost eguneko epean:

- a) Kontatutako gertaerek inolako egiantzik ez dutenean.
- b) Kontatutako gertaerek ez dutenean dekretu honen 4. artikuluan jasotako aplikazio-eremuan sartutako ordenamendu juridikoa urratzen.
- c) Komunikazioak argi eta garbi oinarririk ez duenean edo, sistemaren arduradunaren iritziz, delitu bat eginez lortu dela pentsatzeko arrazoizko zantzuak daudenean. Azken kasu horretan, ez onartzeaz gain, delitutzat jotzen diren gertaeren zerrenda zehatza igorriko zaio Fiskaltzari.
- d) Komunikazioak arau-hausteei buruzko informazio berri eta esanguratsurik ez duenean, aurreko komunikazio batekin alderatuta, zeinari buruzko prozedurak amaitu diren, salbu eta bestelako segimendu bat justifikatzen duten gertakari edo zuzenbideko inguruabar berriak gertatzen direnean.

13. artikulua. Ikerketa fasea

1. Sistemaren arduradunak berehala ekingo dio aurreko artikuluan adierazitako baldintzetan egokitatzat jotzen den informazioan jasotako gertaerak ikertzeari eta egiaztatzeari. Horretarako, inplikaturiko organo edo erakundeetako arduradunengana joko du, informazioa benetakoa den egiaztatzeko.

2. Komunikazioan jasotako gertaerak, zantzuen arabera, delitua izan badaitezke, sistemaren arduradunak berehala bidaliko dio informazioa Ministerio Fiskalari, eta amaitutzat emango du bere jarduna. Horren berri emango die informatzaileari eta ukitutako organismo edo erakundea atxikita dagoen saileko sailburuari, bai eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko sailburu titularrari ere.

3. Informazioan jasotako gertaerak ikertzeko eta egiaztatzeko jarduketak ukitutako pertsonen errugabetasun-presuntzioa eta ohorea ahalik eta begirune eta errespeturik handienarekin gordez garatuko dira, bai eta datu pertsonalak babesteari buruzko legezko xedapenak betez ere.

4. Sistemaren arduradunak edo haren bulegoko edozein kidek, berezkoak dituzten ikerketa-zereginetan ari direla, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko administrazio, organismo edo erakundeen titularrei edo arduradunei errekerimendua eginez gero, albait lasterren eta ahalik eta prestutasun handienarekin erantzun beharko diete eskaerei, eskaera jaso eta gehienez ere zazpi eguneko epean.

5. Adierazitako epea igarota, eskaerak ez badu ondoriorik izan eta ez bada behar bezala bete, sistemaren arduradunak idazkia bidaliko dio betebeharra konplitu ez duenaren nagusi hierarkikoari, eta, halakorik ez badu, kasuan kasuko organismoa edo entitatea atxikita dagoen saileko sailburu titularrari.

6. Komunikazio hori jaso ondoren, eskatutako informazioa emango dio sailburuak sistemaren arduradunari gehienez ere zazpi eguneko epean, eta informazio-espedientea irekiko du,

dagozkion erantzukizunak behar bezala argitzeko. Barne-sistemaren arduradunari informazio-espeditentea amaitu dela jakinaraziko zaio.

14. artikulua. Izapideak amaitzea

1. Aurkeztutako informazioaren berri emateko eskatzen diren ikerketa-jarduketei erantzuteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da, informazioa jasotzen denetik zenbatzen hasita. Informazioak ukitutako kasuak bereziki konplexuak badira, epe hori beste hiru hilabetez luzatu ahal izango da, informatzaileari behar bezala arrazoituz jakinarazita.

2. Behin ikerketa amaituz gero, haren emaitza helaraziko dio sistemaren arduradunak informatzaileari.

3. Arau-hauste administratiborik ez dagoela ondorioztatzen bada, sistemaren arduradunak espeditentea artxibatuko du.

4. Ikerketa amaitu ondoren ikusten bada delitu-zantzuak egon daitezkeela, sistemaren arduradunak informazioa eta ikertutako gertaerak bidaliko dizkio Ministerio Fiskalari, eta amaitutzat emango du bere jarduna. Horren berri emango dio ukitutako organismoa edo erakundea atxikita dagoen saileko sailburu titularrari, bai eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko sailburu titularrari ere.

5. Arau-hauste administratiboa dagoela ondorioztatuz gero, sistemaren arduradunak idatzi bat helaraziko dio inplikaturiko organismoa edo erakundea atxikita dagoen saileko sailburu titularrari. Idazki horretan, ikerketaren ondorioak azalduko ditu, eta hautemandako arau-haustea zuzentzeko eta dagozkion erantzukizunak argitzeko beharrezkoak diren jarduketak hasteko eskatuko du.

6. Komunikazio hori Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari ere helaraziko zaio.

7. Aurreko apartatuan azaldutako komunikazioa jaso eta hilabeteko epean, kasuan kasuko sailburuak egindako jardueren berri emango dio, zehatz-mehatz, arau-hausteen berri emateko eta salatzaileak babesteko barne-sistemaren arduradunari, eta erakunde horren Gardena-gardentasun atarian argitaratuko dira.

15. artikulua. Prozedurako erabakien irmotasuna

Arau-hausteen berri emateko eta salatzaileak babesteko barne-sistemaren arduradunak jakinarazitako informazioekin lotuta hartutako erabakien aurka ezin izango da errekurtsorik jarri administrazio-bidean, ez eta administrazioarekiko auzibidean ere, Arau-hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteari buruzko 2023ko otsailaren 20ko 2/2023 Legearen 13.5 artikuluan xedatutakoaren arabera.

III. kapitulua – Arau-hausteen berri emateko eta salatzaileak babesteko barne-sistemaren arduraduna

16. artikulua. Arau-hausteen berri emateko eta salatzaileak babesteko barne-sistemaren arduraduna

1. Barneko informazio-sistemaren arduraduna sistemaren funtzionamenduaz arduratzen den pertsona fisiko bat da, babes-neurriak hartzea eta aurkeztutako arau-hausteen jakinarazpenak jasotzea, izapidetzea eta ikertzeko prozedurak kudeatzea eginkizuntzat dituen, dekretu honetan aurreikusitakoaren arabera.

2. Arau-hausteen berri emateko eta salatzaileak babesteko barne-sistemaren arduradunak modu independentean beteko ditu bere eginkizunak, eta ezingo du inolako jarraibiderik jaso hura gauzatzean, dekretu honetan eta Arau-hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteko 2023ko otsailaren 20ko 2/2023 Legean aurreikusitako baldintzetan.

3. Arau-hausteen berri emateko eta salatzaileak babesteko barne-sistemaren arduraduna Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari atxikita geratuko da, baina haren egitura hierarkikoan sartu gabe, eta autonomia hierarkiko eta funtzional osoa izango du.

17. artikulua. Araubide juridikoa

1. Arau-hausteen berri emateko eta salatzaileak babesteko barne-sistemaren arduradunaren lanpostua betetzen duen pertsona zuzendari-karguaren pareko maila edo kategoria duen goi-karguduna izango da.

2. Gobernu Kontseiluak izendatuko du, Zuzenbidean eta Administrazio Publikoaren antolamenduan espezializatutako jakintza kontuan hartuta, sei urteko epe luzaezinerako.

3. Izendapen-aldian zehar bere eginkizunak betetzen dituen bitartean, ezin izango da lekuz aldatu, baldin uko egiten ez badio edo bere eginkizunak betetzean dolu edo zabarkeria larria egiten ez badu.

4. Izendatutako pertsona funtzionario publikoa bada, zerbitzu berezietako administrazio-egoerara igaroko da, arau-hausteen berri emateko eta salatzaileak babesteko barne-sistemaren arduradunaren lanpostuan dagoen bitartean.

18. artikulua. Arau-hausteen berri emateko eta salatzaileak babesteko barne-sistemaren arduradunaren bulegoa

1. Arau-hausteen berri emateko eta salatzaileak babesteko barne-sistemaren arduradunaren lanpostua betetzen duen pertsonak bere eginkizuna behar bezala betetzeko behar dituen bitarteko materialak eta giza baliabideak izango ditu.

2. Berariaz, bere bulegoko langileen lanpostu-zerrenda egingo du, eta Gobernu Kontseiluari helaraziko dio, onar dezan.

3. Gobernu Kontseiluari dagokio arau-hausteen berri emateko eta salatzaileak babesteko barne-sistemaren arduradunak modu arrazoituan egiten dituen bitarteko-errekerimenduei erantzutea.

IV. kapitulua – Babes-neurriak

19. artikulua. Babes-baldintzak

Arau-hausteei buruzko informazioa dekretu honetan ezarritakoaren arabera jakinarazten edo ezagutzera ematen duten pertsonak eskubidea izango dute erabateko ukigabetasuna atxikitzeko eta, horretarako, behar diren laguntza- eta babes-neurriak jasotzeko, jasan ditzaketen errepresalien aurka, Arau-hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteko 2023ko otsailaren 20ko 2/2023 Legean jasotako baldintzetan.

20. artikulua. Babes-neurriak hartzea

1. Arau-hausteen berri emateko eta salatzaileak babesteko barne-sistemaren arduradunak hautematen badu –zuzenean, zeharka edo dekretu honen 5. artikulua 3. apartatuan aurreikusitako pertsonen edo subjektuen jakinarazpenaren bidez– dekretu honen 5. artikuluan zerrendatutako pertsonen eta subjektuen aurkako edozein murrizketa edo errepresalia egin dela barneko informazio-kanalaren aurrean arau-hausteak jakinaraztean, egoera horren berri emango dio idatziz Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko sailburu titularrari, eta sailburuak inplikaturiko administrazio-eremu publikoko agintaritzari jakinaraziko dio gertaera hori, jardura hori berehala geldiarazteko.

2. Hamabost eguneko epe luzaezinean, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak arau-hausteen berri emateko eta salatzaileak babesteko barne-sistemaren arduradunari helaraziko dio erabakitako babes-neurrien eta horiek errepika ez daitezen hartutako barne-jarduketan zerrenda.

3. Aipatutako gertaerak eta hartutako neurriak behar bezala argitaratuko dira arau-hausteen berri emateko eta salatzaileak babesteko barne-sistemaren gardentasun-atarian, betiere datu pertsonalak babesteari buruzko araudia errespetatuta, salbu eta murrizte- edo errepresalia-ekintza egiaztatuen egileei eta bultzatzaileei dagozkienak, haien identitatea argitaratuko baita.

Lehenengo xedapen gehigarria. Arau-hausteen berri emateko eta salatzaileak babesteko barne-sistemaren publizitatea

Bai Eusko Jaurlaritzak, bere Gardena-gardentasun atariaren bidez, bai arau-hausteen berri emateko eta salatzaileak babesteko barne-sistemaren arduradunak ere, informazioa dekretu honetan araututako barne-kanalaren bidez aurkezteko modalitateak eta erraztasunak jakinaraziko dituzte. Horrekin batera, informazio-kanpainak egingo dituzte aldzika, herritarrek informazio hori eskuragarri izan dezaten errazteko eta informazioaren kultura sustatzeko, interes publikoaren aurkako mehatxuak prebenitzeko eta detektatzeko eta osotasun publiko demokratikoa indartzeko mekanismo gisa.

Bigarren xedapen gehigarria. Urteko memoria

Arau-hausteen berri emateko eta salatzaileak babesteko barne-sistemaren arduradunak memoria bat egingo du urtero, erakundearen jarduna bilduko duena. Memoria hori Eusko Jaurlaritzari bidaliko zaio, eta haren Gardena-gardentasun-atarian argitaratuko da.

Lehenengo xedapen iragankorra. Baliabideak

Arau-hausteen berri emateko eta salatzaileak babesteko barne-sistemaren arduradunak, bera izendatu eta hilabeteko epean, bere eginkizunak ohikotasunez betetzen hasteko behar dituen bitarteko pertsonal eta materialen errekerimendu arrazoitua planteatuko du.

Gobernu Kontseiluak berehala erantzungo dio, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren bitartez, baliabideen eskaera horri, halako moldez non, izendatu eta bi hilabeteko epean, arau-hausteen berri emateko eta salatzaileak babesteko barne-sistemaren arduraduna bere eginkizunak ohikotasunez eta modu integralean betetzeko moduan egongo baita, dekretu honetan jasotako baldintzetan.

Bigarren xedapen iragankorra. Egoitza

Barneko informazio-kanalaren egoitza digitalaz gain, arau-hausteen berri emateko eta salatzaileak babesteko barne-sistemaren arduradunaren bulegoak egoitza fisiko bat ere izango du, dekretu honen aplikazio-eremu funtzionalean dauden Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoekiko eta sektore publikoko erakundeekiko integritate-, agintaritza- eta independentzia-ezaugarriei erantzungo diena.

Gobernu Kontseiluak arau-hausteen berri emateko eta salatzaileak babesteko barne-sistemaren arduraduna izendatu eta gehienez ere bi hilabeteko epean, eta hark bere eginkizunei ohikotasunez ekitearekin batera, organo horri dagozkion lokalak emango zaizkio, eta horien kokapena behar bezala jakinaraziko da.

Hirugarren xedapen iragankorra. Arau-hausteen berri emateko eta salatzaileak babesteko barne-sistemaren jardueraren hasieraren publizitatea

Gobernu Kontseiluak arau-hausteen berri emateko eta salatzaileak babesteko barne-sistemaren arduraduna izendatu ondorengo lehen bi hilabeteetan, arduradunak, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailarekin lankidetzan, barne-sistemaren xedeari eta helburuei buruzko informazio-kanpaina publiko bat egingo du, eta barneko informazio-kanalera sartzeko mekanismoak azalduko ditu.

Azken xedapenetako lehenengoa. Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen 2021eko urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretua aldatzea.

Letra berri bat, p), gehitzen zaio Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen 2021eko urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 2.2 artikuluari. Honela dio:

2. artikulua.- Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura orokorra.

2.- Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari atxikita edo lotuta daude, beren sortze-arauetan ezartzen den moduan, honako organo hauek:

p) Arau-hausteen berri emateko eta salatzaileak babesteko barne-sistemaren arduraduna, Sailaren egituran integratu gabe, bere eginkizunak betetzeko autonomia hierarkiko eta funtzional osoz, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren esparruan arau-hausteen berri emateko eta salatzaileak babesteko barne-sistema sortu eta arautzen duen xxxxxxaren xx (e) ko XX/2023 Dekretuaren 16. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarrean jartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean bertan jarriko da indarrean.

Decreto por el que se crea y regula el Sistema interno de información de infracciones normativas y de protección de las personas denunciantes en el marco del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi

La Directiva (UE) 2019/1937 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 23 de octubre de 2019, relativa a la protección de las personas que informen sobre infracciones del Derecho de la Unión, califica como clave a la hora de descubrir y prevenir infracciones del Derecho de la Unión que son perjudiciales para el interés público el papel que desempeñan las personas que, habiendo tenido conocimiento de las mismas en el contexto de sus actividades laborales, denuncian tales infracciones.

Tal reconocimiento requiere no obstante el despliegue de una protección equilibrada y efectiva a las personas que presenten las denuncias frente a eventuales represalias que pueden verse obligadas a padecer como consecuencia de esta actuación de tan alto grado de trascendencia pública.

De esta manera, mediante esta Directiva 2019/1937 se contemplan las normas mínimas comunes a aplicar en el ámbito de la Unión Europea que garanticen una protección eficaz de las personas denunciantes, en aras de preservar el interés público, para lo que su artículo 26,1 establece su preceptiva transposición señalando que “los Estados miembros pondrán en vigor las disposiciones legales, reglamentarias y administrativas necesarias para dar cumplimiento a lo establecido en la presente Directiva”.

La Ley 2/2023, de 20 de febrero, reguladora de la protección de las personas que informen sobre infracciones normativas y de lucha contra la corrupción, incorpora al Derecho español la Directiva 2019/1937, del Parlamento Europeo y del Consejo, de 23 de octubre de 2019, y plasma en el Derecho positivo el objetivo fundamental de proteger a las personas que en un contexto laboral o profesional detecten infracciones y las comuniquen mediante los mecanismos regulados en la misma.

Por su parte, esta Ley 2/2023, de 20 de febrero, extiende su ámbito material más allá del contemplado en la Directiva 2018/1937, limitado a las infracciones al Derecho de la Unión, incluyendo también aquellas infracciones penales y administrativas graves y muy graves de nuestro ordenamiento jurídico, entendiendo comprendidas entre estas todas aquellas infracciones que impliquen quebranto económico para la Hacienda Pública y para la Seguridad Social.

